

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Eraso Sexuala vs. Abusu Sexuala. "La Manada"-ren kasua.

Egilea

Irati Gallego Santarén

Gradua

Zuzenbidea

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

5. Genero berdintasuna,
16. Bakea; justizia eta instituzio sendoak

Laburpena

Lan honen helburu nagusia sexu-erasoaren eta sexu-abusuaren arteko aldeak aztertzea da. Horretarako, lana "La Manada"-ren kasua izenekoan zentratu dut. Izan ere, azken urteetako sexu-delituei buruzko kasu garrantzitsuenetako bat da, eta haren eragina juridikoa, legezkoa eta soziala ere izan da. Lana, funtsean, bi blokez osatuta dago, bata teorikoa eta bestea praktikoa. Alde batetik, Espainiako legeria, doktrina eta jurisprudentzia aztertu ditut, eta Europako zuzenbide konparatuari atal bat eskaini diot. Bestetik, epaien analisi kritikoa egin dut, lehenengo bloke teorikoaren informaziotik abiatuta.

2030 Agendaren GIH Ekarpenak

Lan hau genero berdintasunezko helburuari dagokio, bostgarren helburuari alegia. Izan ere, delitu-sexualei buruzko lana da, sexu-indarkeria izanik genero-indarkeriaren mota bat. Halaber, hamaseigarren helburuari dagokiola ere uste dut, Espainiar Estatuko justiziaren analisi-kritikoa ere baita.